

Berrigara


BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 23a / 594. zenbakia



JONY: MUTIL JATOR BAT. EUSKAL HERRIKO EDOZEIN HIRITAN BIZI DA.



PIRATA: JONYREN ZAKURTXOA.



TXUKO: JONYREN ADISKIDEA. OSO LASAIA ETA TRANKILA DA.



PATXI: JONY ETA TXUKOREN LAGUNA. DIBERTIGARRIA ETA ALAIA DA.



AITAITA: JONYREN AITONA. BOLADA BAT EMAN ZUEN UHARTE JENDEGABE BATEAN, POLIREKIN BATERA.



POLI: BESTE GALAXIA BATETIK ETORRI DA GIZAKIAK AZTERTZEKO MISIOAREKIN. AITAITA DA IKUS ETA ENTZUN DEZAKEEN GIZAKI BAKARRA.



ESTITXU: JONYREN LAGUNA ETA BIZILAGUNA. JONY TXORATUTA DAGO HAREKIN.



TIKO: ESTITXUREN ANAIA TXIKIA. JONYREN AMESGAIZTOA DA.



PITU: ESTIREN LAGUNA. BERE "ENKANTUEK" GIZONAK TXORATU EGITEN DITUZTE.



BITXOR: JONY JOAN OHI DEN TABERNAKO ZERBITZARIA. BIRRAK ATERATZEAZ GAINERA, KONFESORE LANAK EGITEN DITU.

Y-03

JONY ETA LAGUNAK

Jon Suinaga komiki liburua
plazaratu du

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 23**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 24**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- DOMEKA, 25**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 26**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 27**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 28**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 29**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
- Ertzaintza..... 943 53 47 20
- Osasun etxea..... 943 76 24 40
- Asepeyo..... 943 76 16 43
- Pakea..... 943 76 13 49
- Angiozako medikua..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
- Odol emalleak..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
- Igerilekuak..... 943 76 20 51
- Kultura etxea..... 943 77 91 52
- Liburutegia..... 943 77 91 68
- Kirolegia..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
- Erregistroa..... 943 76 13 15
- Jardun..... 943 76 36 61
- Idolaz..... 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk..... 943 76 62 71
- Postetxea..... 943 76 26 85
- Bedelkar..... 943 76 04 68
- Akulu AEK..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
13:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
10:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emalleen Elkarteak aditzera eman duenez, abuztuaren bi odol ateratze izango dira, hilaren 11n eta 25ean, hain zuzen ere. Ohikoa denez, Seminarioan izango dira, 18:30ean hasita.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Domekan, uztailaren 25ean, Arantzazura erromesaldia izango da. Bergaratik 09:30ean irtengo dira autobusak. Eguerdiko mezaren ostean bazkaria egongo da Arantzazuko Hospederian. Arratsaldean, autobusak aterako dira Loiolara joateko. Izenematea Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) edo Zatoia dendan (Barrenkalean).

ARITZETAREN ZOZKETA
Aritzeta abesbatzako egindako zozketan, 3.282 izan da saritutako zerbakia. Txartelaren jabeak Luis Laskurain margolariak egindako margolana eskuratu du. Irabazleak abuztuaren 4ra arte izango du saria jasotzeko epea.

JARDUNEN AGENDA

TRIKITI ETA BERTSO ESKOLA
Trikiti eta bertso eskolaren datorren ikasturteari begira izenematea zabalik dago Jardunen. Argibideak 943 76 08 19 zerbakian.

BEGIRALE LAN POLTSA
9-16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko begiraleen lan poltsa osatu nahi du Jardunek. Argibideak: 943 76 08 19.

KANTU LIBURUXKAK
Euskal kantuen liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jardunekó bulegoan, Errotalden, bi euroren truke.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildí okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Arantzabal, Realaren 'fitxaketan' artean

1993-94 denboraldiari begira, Realak aurkezpena egin zuen Anoetan, uztailaren 20an. Agustin Arantzabal genuen aurpegi berrietako bat, Karpin, Iturrino, De Pedro eta Idiakezekin batera. Toshack zen taldeko entrenatzailea garai hartan, eta gazteengan konfiantza osoa azaldu zuen.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Adixo"



Agur, agurra.
— Bai, adixo, gero arte.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 14	10 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 16	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	23,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	26 °C	10 °C	- l/m²
Eguena, 15	29 °C	13 °C	- l/m²
Egubakoitza, 16	32 °C	16 °C	- l/m²
Zapatua, 17	24 °C	16 °C	- l/m²
Domeka, 18	23 °C	18 °C	- l/m²
Astelehena, 19	28 °C	18 °C	23,6 l/m²
Martitzena, 20	28 °C	17 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

KEBAB TALDEA ESPOLOIAN

Udako gauak programako azken musika emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Espoloian. Kebab taldeak (argazkian) jazz emanaldia egingo du, 22:30ean hasita. Bestalde, gogoratu abuztuaren zine emanaldiak izango direla San Martin plazañ, 22:00etan: hilaren 5ean *La edad de hielo* (gaztelaraz), hilaren 12an *Deep blue*, 19an *Días de fútbol* (gaztelaraz) eta, azkenik, abuztuaren 26an, *Motham*, azken profetia eskainiko dute.



AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer egingo duzu udako oporretan? Norabait joateko asmorik?



LUIS LAGUNA
31 urte




JOSE MARI ELGEZUA
51 urte



ARANTAZU SALABERRIA
37 urte



MERTXE FERNANDEZ
48 urte



BENANTZIO AGIRRE
55 urte



PETRA GALEANO
80 urte

Lanzarotera noa. Ez dut eza-gutzen, baina egun batzuk lasai egoteko asmoa daukagu, eguzkitan. Andrea eta semearekin joateko, plan ezin hobea. Badaukat opor-rak hartzeko gogoia.

Almeriara joango gara. Azken bost urteotan hara joan gara, Cabo de Gata. Hamabost bat egunerako joango gara. Oso leku lasaia da hura eta oso gustuko dugu.

Abuztuan astebete lan egitea egokitzen zait eta gero Tarragonara joango gara, hango kanpin batera. Urtero aldatzen dugu tokiz. Neska-mutikoekin, hondartzan eta igerilekuan ondoen.

Lehen hamabostaldian hemen egongo gara eta ondoren Nojara joango gara, Kantabriara. Azken urteotan hango kanpinera joaten gara. Atsedean hartzeko leku ederra da hura.

Lan egitea egokitzen zait abuztuko lehen hamabostaldian eta gero Soriako herri batera joango gara. Ehiztaria naiz eta galeperretara joaten gara dozena erdi bat lagun.

Bergaran geratuko naiz. Beste batzuetan kanpora joan izan naiz, baina aurtan hemen egongo naiz. Alabekin-eta egingo dut irteeraren bat edo beste, hondartzara edo Gasteizera...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK USONDO PARKEKO ITURRIA Irakurle batek bidali digu goiko argazkia. Usondo parkean ateratakoa da, eta gure irakurlearen arabera, gutxienez urtebete da honezkeroko iturria horren egoera penagarrian dagoela. Parkean haur, gazte eta heldu ugari ibiltzen denez, irakurleari lotsagarria iruditzen zaio iturria horrela egotea. Beraz, Udalarri iturria txukuntzeko eskaera egiten dio lerro hauen bidez. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

Urteagakoak, haserre

Urteagako itxierarengatik kaltetutakoek lanen hastea eskatu diote Diputazioari.

KIROLA /9

A Ze Flaxa, txapeldun

A Ze Flaxak irabazi zuen Ipintzako senior mailako finala, penaltietan Fo-fo-fo irabazita.

KULTURA /13

Musika kongresua

Nekane Zabaleta eta Jone Murua-mendiaraz Tenerifen izan dira, musikari gazteen kongresuan.

ASTEKODATUA

8

HILABETE IGARO DIRA URTEAGA ITXI ZUTENETIK

Eskusarte harrobian gertatutako lerradurak zirela-eta, azaroan itxi zuten Bergararik Antzuolarako bidea, Urteagan. Itxierarengatik kaltetutakoak mobilizazioetan hasiak dira.

BESTEKEESANA

“

Zortzi urterekin Donostiara etorri arte, Bergaran bizi nintzen. Baina Burgosen jaio nintzen,

egun bat igaro nuen han. Esperientzia ederra izan da *Los Serrano* telesailan parte hartzea. Orain Ados taldearekin proiektu bat suertatu zait: *Como agua para chocolate*. Irailan hasiko gara entseguak egiten eta Donostian estreinatuko dugu antzezlan, azaroan. Ondoren, jiran aterako gara”
VERONICA MORAL / Aktorea
‘El Diario Vasco’/04-07-19

“Koldo Lasa Deba ibarreko sukaldaritza berriko apostolua da (moderazioa eta txapela zuriarekin, hori bai) eta bere jatetzeko ingurua zoragarria da, ibaia, lorategia eta klasiko ukitua duen zerbitzu modernoarekin. Ezin da gehiago eskatu”
MITXEL EZKIAGA / Kazetaria
‘El Diario Vasco’/04-07-20

BERAIEKDIÑOĖ/ Maite Aristegi



Oporrak, kargau motorrak

Opor usaina dator baztar guztietatik. Eta halako egunetan hor Gabonak aldean izaten doten sentsazio bera dot, norbaitek “orain ahaztu arazuak eta ondo pasau, agindu bat da” esango balu bezela. Izan be, bizitzaren bikoiztasuna inoiz baino sakonago agertzen da halakoe-tan. Alde batetik, jai eta atsedean hartu, leku eta lagun zahar edo berriak ikusi eta etenaldi gozo bat egitearen poza eta bestetik konpondu barik dauzkagun, sufrikarioan ditugun inguruko edo urrutiko zoritxarrak (Fleuryn galdutako Oihaneren begiak edo Antxonon irribarrea, gose eta egarriz dagoen askatasun antsia, hortxe ditugu begira, esaterako). Baina, egun zoriontsu batzuk igarotzeko asmoz ibiliko zaretan honetan ez noia beste gain-zama bat emotera. Hala be ezin ahaztu euskaldunok irailerako uzten dogun asignatura garrantzitsua: gure Herriak bizi daben arazo politiko larrira konpontzea.

Eta argi egin behar daben kriseilu batek bezela, geuk ere pilak kargatu behar ditugu oporretan. Hitzetatik ekintzeta-ra pasatzeko. Geure etorkizunaz erabakitzeke danok dogun eskubidea errespetatzeko sasoa iritsi dalako. 1998an Lizarran abiatu eta galduta dabilen tren hartara berriz igotzeko. Entzuten dan bezela, danek herritarren hitza errespetatu nahi badabe, eta tren horren norabidean bat bagatoz, bideak aztertu beharko ditugu aurrera eramateko. Eta

“Herritarrok ere hor egon behar dogu, adi-adi, parte hartzeko ematen jakuzen aukerak balixatuz”

herritarrok ere hor egon behar dogu, adi-adi, parte hartzeko ematen jakuzen aukerak balixatuz, ez badare salatuz, edo berriak sortuz. Zoritxarra gertatu eta gero, bueltarik ez dabenean arrazoia emoteaz aspertuta garelako, bada garaixa herritarren eskubideak martxan jartzen hasteko, bai gai politiko nagusian, bai beste proiektu publiko guztietan. Bitartean, dan-danoi, ahalik eta ondoen ibili, edo egon.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Usoa Agirre
Irati Agirreazaldegi
Jon Bereizbar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

AZPIEGITURAK/ Atzo, eguena, elkarretaratzea egin zuten San Martin plazan

Lanak lehenbailehen hastea eskatu diote Diputazioari Urteagako kaltetuek

EDU MENDIBIL

Urteaga kaleko itxierarengatik kaltetutako enpresa eta partikularrek mobilizazioak deitu dituzte datozen egunotarako. 2003ko azarotik Bergaratik Antzuolara joateko bidea itxita dago eta Diputazioak agindutako lanak ez dira hasten.

Urteagako itxierarengatik kaltetutakoek lanak lehenbailehen hastea eskatu diote Diputazioari errepideen departamentuari. Gogoratuko duzue, Bergaratik Antzuolara joateko errepide zaharra itxita dago joan den azarotik, Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ondoren. Lerradurak zirela eta, 2003ko maiatzean ere errepidea itxi egin behar izan zuten.

DIPUTAZIOAREN ZAIN

Horren ondorioz, Antzuola alde-rako joan-etorria egiteko ekialdeko saihezbidea erabiltzera behartuta daude auto gidariak. Gidariak eta inguruan kokatuta dauden enpresek jasaten dituzten kalteak nabariak dira. Horrez gain, Urteaga 29ko bizilagunak beraien etxebizitzak uztera behartu zituzten, istripuren bat gertatzeko arriskua zegoelako.



AINZANE IRIZAR

Atzo, eguena, Urteagako itxierarengatik kaltetutakoek elkarretaratzea egin zuten San Martin plazan, eguerdian.

Joan den apirilaren 26an Bergarara egindako bisitaldian, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak Diputazioa egin beharreko lanen kargu egingo zela adierazi zuen. Lanak adju-

dikatzeaz zela adierazi zuen orduan. Aipatutako lanek, hasiera baten, bost milioi euro inguruko aurrekontua daukate.

Hala ere, apiriletik hona ez da inolako mugimendurik egon ara-

zoa konpontzeko eta kaltetuek mobilizazioak deitu dituzte. Atzo eguena, elkarretaratzea egin zuten San Martin plazan eta lanak hasten ez badira, protestekin jarraitzeko asmoa dute.

LABUR


Antxon Sasiain presoak astebeteko gose greba egin du

Antxon Sasiain preso bergararrak astebeteko gose eta egarri greba egin du. Antxon Sasiain Frantziako Val de Reuil-go espetxean dago preso eta Oihane Errazkinen heriotza eta euskal presoek jasaten duten heriotza salatzeko ekin zion gose grebari. Uztailearen 8tik 16ra egin zuten gose eta egarri greba eta Amnistiaren Aldeko Batzordeko iturrien arabera, lau bat kilo galdu ditu Sasiainek.

Errauste planta ez dute azkenean Angiozarren jarriko

Azken asteotan zeresan ugarri eman duen Gipuzkoako bigarren errauste planta Donostian, Aritzetan jarritza erabaki dute. Kokaleku posibleen artean Angiozarko Aldai auzoa zegoen.

Hala ere, esandako moduan, Aritzetan jarriko dute. Halaxe erabaki zuten astelehenean Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko Jarraitze Batzordeak. Asteleheneko bileran, besteak beste, Ignazio Lakunza Debagoieneko Mankomunitateko presidentea izan zen.



Lasai-Tokik argazki lehiaketa deitu du

Udaren inguruko argazki lehiaketa deitu du Lasai-Toki gastronomia elkarteak. Bi sari banatuko dituzte: lehenengoari, herriko argazkigintza materiala erosteko 250 euro; argazki dibertigarriena aurkeztu duenari, Konica Zup 90 argazki-kamera; eta Lasai-Toki elkarteko bazkideen artean argazki onena aurkeztu duenari, nekazal turismoan asteburu bat, gaua eta gosaria barne. Lanak aurkezteko epea irailaren 13ra arte izango da zabalik, Lasai-Tokin bertan.

Lanon atzeko aldean, egilearen izen-abizenak, bizilekua eta telefonoa adieraziko dira. Bakoitzak lau lan aurkeztu ditzake, gehienez ere. Sari banaketa irailaren 28an egingo dute eta argazki onenekin erakusketa zabalduko dute, irailaren 21etik urriaren 3ra bitartean.

Amaitutako denboraldiaren balorazioa ona egin zuten BKEK

E.M.

Bergara KEko bazkideek azken denboraldian zuzendaritzak eginitako lana berretsi zuten, joan den egubakoitzeko batzar orokorrean. Hogeita bat lagun elkartzaren bidez, Han erabakitakoaren arabera, bazkideen kuotek ez dute igoerarik izango hurrengo denboraldian eta, era berean, jokalarien gurasoek 100 euro ordaintzen jarraituko dute, azterketa medikoa eta kuotagatik hain

zuzen. Erabaki horretan zerikusia izan du Arantzabalek Zaragozarekin fitxatzeak. Zaragozaren alde egitean, Realak jasoko duenaren %10 dagokio Bergara KEri. 160.000 euro hain justu.

BALANTZE POSITIBOA

Diru kontuei dagokienez, futbolariek 147.900 euroko aurrekontua izango du datorren denboraldirako. Amaitutako denboraldian, eskubaloian izan ezik, klubeko sail guztiak balantze positiboak izan dute.



Argazkian, joan den ostiraleko batzarreko irudi bat.



Ohiturari eutsiz, zapatu arratsaldean idi probak izango dira Basalگو auzoan.

ARTXIBOA

JAIK/ Bihar, zapatua, bertso bazkaria Zeberio eta Mañukorta eta Xafre eta Zarrarekin

Basalگو Santiago jaiak ospatuko dituzte asteburuan

EDU MENDIBIL

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Basalگو Santiago jaiak. Kanpai hotsek eta etxafuegoek emango diete jaiari hasiera, 21:00etan. Ondoren, ohizko txopo jasotzea egingo da. Bestalde, bihar, zapatua, bertso bazkaria izango da, Zeberio eta Mañukorta bertso-lariekin eta Xafre eta Zarra trikitilariekin. Izenematea Iraho eta Mekolalde tabernetan egin daiteke.

TXIRRINDULARI IGOERA ETA PILOTA

Domekan, berriz, Meza Nagusia izango da 11:00etan eta jarraian gaztetxoei zuzendutako Basalگو Txirrindulari Igoera jokatu da, 12:00etan. Ondoren, pilota partiduak izango dira Basalگو: alde batetik Perez-Rezusta eta Igartua-Irizar Bergarako pilota eskolako gaztetxoei neurtuko dituzte indarrak eta bestetik, amateur mailan, Etxaniz-Jauregi eta Muguruza-Gutierrez bikoteak lehiatuko dira. Arratsaldean,

berriz, Basalگو Dantza Txapelketaren XII. ekitaldia izango da, zortzi bikoteren partaidetzarekin. Dantzen ondoren, idi probak egongo dira: Itziarko Julian Uzaiebeñe eta Okinako Pako Urkiola izango dira lehian. Iluntzean, berriz, erronomia izango da, Xafre eta Zarra soinu-joleekin.

Bukatzeke, astelehenean, hilaren 26an, meza izango da 13:00etan eta ondoren *luncha* banatuko da. Neska-mutikoen dako jolasak izango dira baita.



Herriko erretiratuak, lehian

Aurreko astean erretiratuaren egoitzan jokatuak txapelketetan honako hauek izan ziren irabazleak: bolotan, Ramon Agirre; billarrean, Felix Garcia; igela jokan eta token, Antolin Marchena eta Jesus Etxabe, hurrenez hurren; tute txapelketan Abraham Sanchez eta Filiberto Pescadorrek irabazi zuten; zortzi erregetako musean Lucas Diez eta Emeterio Flores nagusitu ziren eta, azkenik, briskan, Irene Gabilondok eta Rosa Larrañagak irabazi zuten.

Borondate politiko falta sumatzen du Bergara Aurrerak

ERREDAKZIOA

Udaletxean borondate politiko falta sumatu du Bergara Aurrerak. Maite Guridi, Jesus Mari Garitano, Mikel Eguren eta Mila Elortza komunikabideen aurrean azaldu ziren astelehenean. BAKO kideek zera adierazi zuten: "Lizartzan gertatu denak argi laga du, borondate politikorik egonez gero, posible dela apartheid egoera gainditzea. Badira hilabete batzuk Bergaran ere proposamen berbera egin genuenetik, Bergarako herritarren borondatea errespetatu, eta BAKO zinegotzien parte hartzea beste guztiena bezalakoa izatea ziurtatzen duen mahai gainean jarritako proposamen bakarra. Aralarrek ere egin du bere proposamena, baina honek ez du lehen

esandakoa bermatzen. EAJ-EAren aldetik, berriz, hainbat ideia aipatu badira ere, ez da egon proposamen zehatzik eta orain arte ez dugu ikusi egoera gainditzeko benetako borondaterik".

UDAL GOBERNUARI DEIA

Udal gobernuaren alderdiei (EAJ-EA eta Aralar) hitzetik ekin-tzetara pasatzeko deia luzatu zieten: "Benetan Alderdien Legearen aurka baldin badaude, euren zinegotziek dimititu egin behar dute, beraiek eta besteok herriak erabakitako ordezkari izan dezagun". Azkenik, datorren astelehenean, uztailearen 26an, 19:30ean, udaletxean egingo den udalbatzarrerara joateko deia luzatu zieten herritarrei, Bergara Aurreraren planteamendua defenditu ahal izateko.



OIHANA ELORZA

Argazkian, Bergara Aurrerako kideak asteleheneko prentsaurrekoan.

LABUR

Plastiko bilketa egingo du Mendi Nekazaritza elkarteak martitzenean, hilaren 27an

Mendi Nekazaritza elkarteak deituta, landa gunetarako plastiko bilketa egingo da martitzenean, hilaren 27an. Belar boletan edota siloa estaltzeko erabiltzen dena zein negutegietan erabiltzen dena batuko dute, Ugarrixan, Murinondon eta San Juanen.

Bingen De Pedoren ikasleen margo erakusketa Nahikari tabernan ikusgai


Bingen De Pedro bergarar margolariaren ikasleek erakusketa zabaldu dute Nahikari tabernan. Bingen De Pedoren pintura ikasten diharduten hamabi lagun lanak jarri dituzte ikusgai. Erakusketa uztailearen amaierara arte izango da zabalik.

Ipintzako futbol txapelketan egindako zozketan 1.609 zenbakia izan da saritua

Ipintzako futbol txapelketan 1.609 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Zumelaga jatetxean lau lagunendako afarria eskuratuko du. Txartelaren jabea agertuko ez balitz, 2.383 izango da ordezkari zenbakia.

San Joxepe elkarteak Donostiako suzko erruberak ikustera joateko irteera egingo du

San Joxepe elkarteak Donostiako suzko erruberak ikustera joateko irteera egingo du abuztuaren 12an. Irteera 16:00etan izango da eta itzulera, gauerdian. Izenematea abuztuaren 6ra arte dago zabalik. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.




Ondo ibili!

Berrigara

Irailaren 3an, berriz zuekin

MINGAINARITIRAKA



Arantxa
De La Fuente

MARKELIÑE DENDAKOA

Beasaindarra den arren, Bergaran bizi da Arantxa; orain dela urte eta erdi inguru jarri zuen umeendako Markeliñe denda. Aurrez umeei dantzak irakasten ibilitakoa da eta badauka eskarmentua umeekin.

Bezero onak dira umeak?

Bai; orokorrean ondo portatzen dira, baina, umeak beti ume. **Beti entzun izan dut umeendako arropa garestia dela. Hala da?**

Denerako arropak daude; marka batzuk nahiko garestiak dira, baina arropa merkea ere badago. Kontua da umeak azkar hazten direnez, arrokek denbora gutxirako balio diola umeari.

Umeendako denda izanda, umezalea izango zara, ezta?

Bada, bai; umeak oso gustuko ditut. Lehen ere umeekin lan egingakoa naiz; dantzak irakasten nizkien.

Zeuk moda jarraitzen duzu?

Bai, gustatzen zait moda jarraitzea.

Zure lanean zer gustatzen zaizu gehien?

Batez ere, jendearekin harremana izatea.

Eta gutxien?

Ordenadorean ere lan handia izaten dut eta hori ez zait batere gustatzen.

Oporretarako planik egin duzu?

Abuztuko erdiko bi asteetan itxiko dut denda eta oporrak izango ditut; hondartzara joango gara, baina, oraindik ez du plan zehatzik egin.

Uda ala negua nahiago?

Bakoitzak baditu bere gauzak onak; udako eguraldia gustukoa da, baina, negua ere polita da: elurra, mendian ibiltzea... gustatzen zait neguan.

Kolore bat?

Zuria.

Zapore bat?

Marrubiarena.

Euskal Herriko txoko bat?

Ez da erraza hori erantzutea; dena dela, niri, batez ere, kostaldea gustatzen zait.

Desio bat?

Negozia orain dela gutxi jarri dut eta dena ondo joatea nahiko nuke; horixe da momentu honetako nire desio nagusia.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

RAMON GALLASTEGI

34 URTE / TELEKOMUNIKAZIOEN INGENIARIA / MADRILEN BIZI DA

“Herriminez begiratzen diot jaioterriari, baita kezka ere, Euskal Herriaren egoeragatik”

JON BEREZIBAR/ AINTZANE IRIZAR

Hamabost bat urte daromatza Ramonek Bergararik kanpo bizi izaten. Lehenengo Bilbora joan zen ikastera; Telekomunikazioen Ingeniariatzako ikasketak, hain zuzen ere, egin zituen hantxe. Unibertsitateko ikasketok amaitu zituenetik, berriz, Madrilen bizi da: “Lan bila etorri nintzen Madrilerara; Euskal Herrian oso zaila zen nire ikasketekin lotutako lanpostu bat topatzea. Hemen, Madrilen, aukera gehiago eta hobekak zeuden”, azaldu digu Ramonek.

1997an iritsi zen Madrilerara eta Airtel konpainian hasi zen lanean; orain, berriz, Vodafone Group taldean dihardu.

Oso gustura dago Ramon bere lanarekin: “Airtel Vodafone Group taldean sartu zenetik, nire

“Madrilen lagun asko nituen, eta euren laguntzarekin, ondo moldatu nintzen”

lana askoz interesgarriagoa da, zailagoa, baina, interesgarriagoa”, diosku.

Kontatu digunez, ez zitzaion asko kostatu Madrileko bizimodura moldatzea: “Aldaketa ez zitzaidan hain gogorra egin; zazpi urtez bizi izan nintzen Bilbon eta Madril ez zitzaidan oso ezberdina iruditu. Jakina, Bilbo baino askoz handiagoa da, baina, lagun asko neuzkan hemen eta euren laguntzarekin, oso ondo moldatu nintzen”.

Madrilen ezagutu zuen Ramonek gaur egun bere emaztea dena, “Alcala de Henaresko neska zoragarria”, bere hitzetan. Orain dela hiru urte ezkondu ziren eta seme-txo bat daukate, Iñigo.

Gauza mordo egiteko aukera eskaintzen dio Madrilek Ramoni: “Hemen aukera asko dituzu, baina, norberak bilatu behar ditu aukerok, ezin zara geldirik geratu”.

Asko gustatzen zaio Ramoni Madrilen paseatzea, hiriko erdiguneko kaleetan alde batetik bestera, bereziki; baita parkeetara, liburutegietara, museoetara edo antzerkera joatea ere.

Hirian gutxien gustatzen zaiona, berriz, egoten den trafikoa da: “Sekulako ataskuak egoten dira, egunero, hiriko edozein gunetan; eskerrak metroa dugunari, bestela, ezinezkoa izango litzateke hirian zehar mugitzea”, azaldu digu Ramonek.


Madrilen gustura bizi den arren, herrimin handia izaten duela ere aitortu digu: “Herrimin handiz begiratzen diot nire jaioterriari, baita kezka ere, Euskal Herriaren egoeragatik; ea noiz lortzen dugun bakea, behin betiko”.

Bergarako bizimodutik ere hainbat gauzaren hutsunea nabaritzen du: “Esaterako, kalera irten eta segituan, erraz, topatzen dituzu lagunak; hori ezinezkoa da Madrilen”.

Noski, Bergarako familiaren eta lagunaren hutsunea ere nabaritzen du Ramonek. Gainera, azaldu digunez, ez da nahi adina etortzen Bergarara; izan ere, lau orduko bidaia luzeegia da ume txiki batendako.

Etorkizunaren gainean galdetuta, zera erantzun digu Ramonek: “Benetan, ez dakit noizbait Bergarara edo Euskal Herriara itzuliko naizen; oraingoz, oso gustura bizi gara Madrilen.

Hala ere, ez dut uste betiko geratuko garenik hemen Madrilen; ez dugu baztertzeko beste hiri batera bizi izatera joateko ideia ere”.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Final parekatua jokatu zuten A ze flaxa (txuriz) eta Fo-fo-fo (gorriz) elgetarrek.

IPINTZAKO TXAPELKETA

A Ze Flaxa Guipuzcoana taldea izan da aurtengo Ipintzako txapelketako irabazlea

Hamasei urtean lehen aldiz irabazi du A Ze Flaxa Guipuzcoana talde beteranoak Ipintzako txapelketa

JON BEREZIBAR

Txapelketan hamasei urtez jokatu ostean, aurtengo lehenengo aldiz A Ze Flaxa taldea izan da Ipintzako senior mutilen txapelketako irabazlea. Finalean Fo-fo-fo elgetarren aurka hutseko emaitzarekin bukatu ostean, penaltietan erabaki zen txapelketa.

Aurten, lehenengo aldiz A Ze Flaxa Guipuzcoana talde beteranoak izan da Ipintzako txapelketako senior mutiletan irabazlea. Elgetako Fo-fo-fo taldearen aurka jokatu zuen finala eta oso parekatuta egon ziren talde biak. Arrisku txikiko jokoa eginda, markagailuan hutsean amaitu zuten partidua. Horrela, penaltien bitartez erabaki behar izan zuten etxera

nork eramango, zuen aurtengo Ipintzako txapelketako kopa. Azkenean, sei penalti sartu behar izan zituen A Ze Flaxa taldeak garaipena bereganatzeko.

Fo-fo-fo iazko txapelduna izanda aurten ere faboritua izan da. Hala ere, ezin izan zuen garaipen hori berri A Ze Flaxak denboraldi txapelketa bikaina egin baitu aurten. Hamasei urte txapelketan parte hartu ostean, aurten, estreinako aldiz irabazleak izatea lortu dute, A Ze Flaxa taldeko jokalariek txapelketako beteranoenak direla. Hala ere, adina ez da inolako traba izan garaile ateratzeko.

SARI BANAKETA

Finala jokatzear gain jokalariek onenak ere saritu dituzte. Aurten jokalaririk onena Ibai Gonzalez

izan da eta atezainaren sariari dagokionez, Kepa Irizarri eman diote. Bestalde, txapelketako gogile nagusiari dagokionez, Haritz Gallastegi, Fo-fo-fo taldekoa, eta Bildubarek taldeko Juan Luis Etxanizek hamarna gol sartu zituzten txapelketan. Berdinketa, apurtzeko, penaltietan, Etxaniz nagusi zen. Sari horiez gain, beste bi ere egon ziren. Jokalari beterano onenaren saria Alberto Francori eman zioten eta sari berezi bat ere egon zen: Bittor Jimenezek jaso zuen aipamena, txapelketan erakutsitako aparteko kemen eta ilusioarengatik.

Sariak sari eta txapeldun bakarra egon daitekeen arren, aurten ere lagun giroa izan da nagusi. Talde guztiek ilusioz jokatu dute aurtengoan ere eta parte-hartzea bikaina izan da.



Kepa Irizarrek Ane Zangituren eskutik jaso zuen atezain onenaren saria.



Jose Luis Beitiak eman zion Bittor Jimenezi sari berezia.



Ibai Gonzalezek jaso zuen jokalaririk onenaren saria.



Txapelketako pitxitxia, Juan Luis Etxaniz, Jasone Larrañagarekin batera.

ELKARRIZKETA

JON MUXIKA/AUTOZALEA

"Dirua baino gehiago arreta handia eta denbora da auto-zaletasunak eskatzen duena"

J.B.
Joandako neguan hasi ziren Jon Muxika eta anaia Iban etxeko 4x4 zaharra hartu eta trial probetan parte hartzen. Betidanik auto-zaleak izanda, hurrengo denboraldian, aurkezten zaizkien proba guztietan parte hartzeko asmoa dute.

Nondik datorkizue auto eta rallytarako zaletasuna?

Betidanik izan gara motor-zaleak eta asko gustatzen zaizkigu autoak anaiari eta bioi, baina orain arte zaletasun hutsa besterik ez da izan. Trial probetara joaten, ostera, orain dela oso gutxi hasi ginen, iazko neguan, hain zuzen ere. 4x4 autoarekin joan ginen lehen proba Arbizukoa izan zen. Horretarako etxean geneukan 4x4 zaharra hartu eta horrela aurkeztu ginen.

Garesti irteten zaizue?

Egia esan, dirua baino gehiago denbora da auto-zaletasunak eskatzen duena; ordu asko era-


maten baititu gauza baten edo beste. Dirua, batez ere, gasolina eta pneumatiko kontuetan joaten zaigu baina, esan bezala, dirua baino dedikazioa da gehiago. Izan ere, mekaniko lanak guk geuk egiten ditugu; hau horrela ez balitz, orduan bai izango litzatekeela gastu itzela.

Autoaren mantenuaz gain, entrenatzen ere ordu asko egiten dituzue?

Entrenamendu larregi ez ditugu egiten. Plangintza zehatzik jarraitzen ez dugun arren astebururo mendi-bueltak egiten ditugu lagunekin eta horrela behintzat eskua hartzen diogu autoari. Hala ere, azkeneko probarako prestatzeko egunean, batez beste, hiru bat ordu entrenatzen ginen; sasoiaren araberakoa da, beraz.

Probetako hasierako esperientziak nolakoak izan dira?

Denetan ondo ibili gara. Bi aipatzekotan Arbizu eta Eskoriatzako probak aipatuko nituzke, bietan oso gustura ibili bai-



Jon (eskuman), anaia Ibanekin batera.

kinen anaia eta biok. Arbizukoa lokatzetan izan zen eta lehenengo esperientzia, baina ondo ibili ginen. Orain artekoak ikusita, irailetik aurrera, aurkezten zaiz-

kigun proba guztietan parte hartzeko asmoa daukagu. Ea Eskoriatzian moduan hemen inguruan ere trial probak antolatzen diren, zaletasuna badago-eta.

KIROLA

Bizikleta eta pilota gaztetxoentzat Basalgoko jaietan

Basalgoko jaietako egitarauaren barruan, hainbat kirol-ekitaldi antolatu dira domeka eguerdi eta arratsalderako, guztiak kirolari gaztetxoentzat zuzendutakoak.

Hasteko, domeka eguerdian txirrindulari igoera egongo da, eta nahi duten gaztetxoek parte hartzeko aukera izango dute. Lasterketa 12:00etan hasiko da. Proba honen ostean pilota partiduak jokatu dira Basalgon. Bergarako pilota eskolako Perez-Rezusta eta Igartua-Irizar bikoteek jokatu dute eta ondoren, amateur mailan, Etxaniz-Jauregi eta Muguruza-Gutierrez lehiatu dira.

IGERIKETA

Zilarrezko bi domina eskuratu ditu Iñigo Gallastegik

Joan den asteburuan jokatu zen beterano mailako Espainiako txapelketan bi zilarrezko domina eskuratu ditu Iñigo Gallastegik 50 eta 200 metro bizkar estiloan.

Udako kirol kanpainak harrera ona izan du aurten ere


J.B.
Gaur amaitu da Udalak antolatutako udako kirol kanpaina. Bigarren txanda uztailaren 12an hasi zen eta aurrekoan bezala jende ugari hartu du parte. Eskaintza zabala izan du aurten ere kanpainak eta programatutako kirol guztietarako taldeak osatu ez diren arren, erantzun ona izan du kanpainak orokorrean. Gaur amaitu den bigarren txandari dagokionez, igeriketan sortu dira talderik gehienak eta nahiz eta 9tik 14ra bitarteko neska-mutikoen txanda bakarra antolatu behar izan den, gainontzeko

adinetan bi txandak egon dira. Era berean, multiaktibitateak eta tenisa harrera ona izan dute. Egin diren gainontzeko taldeak piraguismokoa eta pilota jolasenak izan dira. Eskaladan, ostera, umen taldea bakarrik egon da.

Beste hainbat kirol jarduerarekin programatu zituzten bigarren txandarako baina, azkenean, ezin izan dira talde guztiak osatu. Hauek nagusientzako piraguismoko bigarren txanda eta eskalada taldeak izan dira.

Orokorrean aurten ere parte hartze handia egon da bai lehen txandan zein bigarrean, talde batzuk egon ez diren arren.

FOTOKIROLA



Larralde garaile Santamarina sarian

Joandako zapatuan jokatu zen Santamarinako XIII. txirrindulari proba. Joseba Larralde beratarak irabazi du aurten gazte mailako proba hau. Argazkian Josebarekin (ezkerrean) batera Unai Arantzabal agertzen da sari banaketan, helmugara iritsi zen lehen bergararra. 50 lagunek hartu zuen parte baina 27 txirrindularik soilik lortu zuen 100 kilometroko ibilbidea burutzea, probaren gogortasunagatik. J.B.

Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra •

• Asegurua: LAGUN-ARO

ALBAITARIAK**ARTAZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala)** 943 76 43 29 / 609 54 16 13**IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserría, ANTZUOLA. 943 76 63 46**ANALISI KLINIKOAK****LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06**BARNE MEDIKUNTZA****IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06**DENTISTAK****AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88**CAVIGLIA Silvana S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69**TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76**DIETISTAK****ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA**LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74**FISIOTERAPEUTAK****ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71**BASTERRETXE, María** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71**HOMEOPATA****GANUZA Susana** Ramon María Lili 2. 943 76 59 39**MASAILARIAK****AZPEITIA Iruñe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13**MEDIKUNTZA ESTETIKOA****BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62**MEDIKUNTZA OROKORRA****OXIRONDO KONTZULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50**PODOLOGOAK****IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32**PSIKIATRA****GALLASTEGI Pablo** San Martín Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64**PSIKOLOGOAK****PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitate). 943 76 14 80**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76**YOGA****SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753**BERGARAKO
OSASUN GIDA**
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 30. zenbakia

IEPA LAGUNOK!

Iepa lagunok! Hemen nator aste honetan be zuekin tarte zoragarri bat igarotzeko asmuakin. Gaurko alia ilusiño handixekin prestatu dot. Ia zuen gustokua dan!! Eskuartian daukazuen ale hau ikasturte honetako azkena izango da. Beraz, ondo segi eta iraillian berriz elkar ikusiko gara. ONDO PASA!!!



URREZKO ARAUAK

Orain arte landutakuak

- Bigarren intxaurra joko dot.
- Ez naiz iñorekin elkartu.
- Dantza egin gabe geldittu zeinke.
- Eskubaloian jokatuko dogu.
- Atzo bi eta bat irabazi giñuan.
- A ze sustua emon doskuzun!
- Seguruenez zuetako asko ikusiko zaittuet.
- Ona egingo baleu, zugana juango giñake.



IKUSIMAKUSI

- Ikusi Makusi!
- Zer ikusi?
- Ikusten dot gauza bat hasten dala...



Partaidietako bat jolasarekin hasiko da:

"Ikusi Makusi!" esanez. Beste danak "Zer ikusi?" esanaz erantzungo dotse. Jolasarekin hasi dan partaidiak hurrengo esaldi hau esango dau: "Ikusten dot gauza bat hasten dala..." (A hizkiarekin, adibidez).

Gaiñontzeko jokalarixak ingurura begiratu eta hizki honekin hasten diren objektuen izenak aittatuko dittuzte txandaka. Asmatzen daben jokalarixa izango da hurrengua jokuarekin hasiko dana.

- ~~Bigarren intxaurrari joko dotsat.~~
- ~~Ez naiz iñobezekin elkartu.~~
- ~~Dantza egin gabe geldittu leikeza.~~
- ~~Eskubaloian jolastuko dogu.~~
- ~~Atzo bi bat irabazi giñuan.~~
- ~~Ke susto emon doskuzun!~~
- ~~Seguruenez zuetako askori ikusi ko dotsuet.~~
- ~~Ona egingo baleu, zugana juango giñen.~~



ESAERA ZAHARRAK LOTZIA

- | | |
|--------------------|------------------------|
| 1- A ze paraa | A- nekerik ez |
| 2- Kalian uso | B- hainbat aburu |
| 3- Zozuak beliari | D- karakola eta baria |
| 4- Gogoko aldapan | E- etxian otso |
| 5- Ogi gogorrari | F- bihar haiziak eruan |
| 6- Gaur hitza emon | G- ipurbeltz |
| 7- Zenbat buru | H- hagin zorrotza |



E, TXO!

GUREGAIK/ OPORRETARAKO GOMENDIOEN LEHIAKETA

**GAZTERIA TEKNIKARIA
ELGOIBARKO UDALERAKO**

Elgoibarko Udalak gazteria teknikari bat behar duela eta deialdia egin du. Diplomatura edo erdi mailako titulazioaren jabe izatea eta hirugarren hizkuntza eskakizuna betetzea dira postu honetarako jarritako baldintza nagusiak. Interesatuak izena emateko azken eguna uztailearen 25a da eta horretarako Elgoibarko udaletxera jo beharko da.

**KUTXAK LITERATUR
LEHIAKETA ANTOLATU DU**

Literatur sorkuntza eta hedapena sustatzeko asmoz Kutxak Donostia Hiriko Literatur Sariketarako dei egin du. Ipuinak eta antzerki lanak aurkeztu beharko dira, eta lanak urriaren 25a baino lehen honako helbidera bidali behar dira: GUDAT/Illarra Bidea 4/20018 Donostia. Irabazleen izendapena eta sari banaketa 2005eko urtarrilean egingo dituzte. Argibide gehiago nahi izanez gero deitu 943 000 850 telefonora.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergara, Arrasate eta Oñatiko gazte informazio bulegoek "Gomendatzen dizut..." lehiaketa abiarazi dute. Gazteek oporretan gustuko izan dituzten tokien berri eman beharko dute, edo alderantziz, gustatu ez zaizkienak zein diren esan.

Gazte asko joango da uda honetan etxetik kanpo oporretara. Bada, oporretan joan arren lan pixkatxo bat egin nahi dutenei aukera hori emango diete Bergara, Arrasate eta Oñatiko gazte informazio bulegoek. Lana edo eginbehar bitxi samarra bai behintzat.

Oporretan ikusitako tokien artean gustukoena edo interesgarriena iruditu zaizkienak apuntatzeko ardura hartu ohi dute batzuek, baina beste zenbait ikuste hutsarekin konformatzen dira. Gogoan gutxienez har ditzaten eskatuko diete gazte bulegoetan ordezkariak. Baita berriz sekula bisitatuko ez lituzketen lekuak ere.



Oporretarako toki interesgarrien berri jaso nahi dute lehiaketa honen bidez.

FITXAK

Gogoan hartu edo koaderno batean apuntatu ostean, hiru gazte bulego hauetariko batera joan

eta fitxa bat bete beharko dute gazteek. Bergarako bulegoa eguen eta egubakoitzetan irekitzen dute. Uztailean, 29an eta 30ean irekita

egongo da, eguenean egun osoz (9:30-13:30/16:00-20:00) eta egubakoitzean, berriz, goizez. Abuztuan, aldiz, 5ean, 6an, 26an eta 27an egongo da zabalik; ordutegia uztaileko berbera izango da.

Fitxa horretan, bidaian gustuko izan duten hiria, mendia, aterpetxea, hondartza edo beste edozeren berri eman ahal izango dute gazteek, zergatik gustuko izan duten azalduz eta arrazoiak emanez.

Behin gomendio guztiak jasota, asmoa da bulegoetara kontsultak egitera joaten diren beste gazte batzuei informazio hori helaraztea. Bai nora joan daitezkeen jakin dezaten edo nora ez bidaiarik egin jakiteko.

FITXAK

Gazte bakoitzak nahi beste gomendio egin ditzake, Hori bai, fitxak betetzeko azken eguna irailaren 24a izango da.

Lehiaketan parte hartzen dutenen artean zozketa bat egingo da. Bulego bakoitzean egonaldi bana zozkatuko du erkidegoko landetxe batean. Sari banaketa irailaren 30ean egingo da.

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teillatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

- Iturgintza
- Akreditazioa: gas ontziratua
- Galdaren mantentzea



Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
670 422 059
F 943 76 02 78

- Pintura
- Dekorazioa

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA

Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



ELKARRIZKETA

JON SUINAGA/KOMIKI EGILEA

“Koadrila baten gorabeherak islatzen ditut ‘Jony eta lagunak’ komiki liburutxoan”

EDU MENDIBIL

Jon Suinaga BERRIGARAKO kolaboratzaileak *Jony eta lagunak* izenburuko komiki liburua plazaratu berri du. Lanbidez ingeniaria da Jon (Fagorren dihardu lanean) eta aisialdian komikiak egitea atsegin du. Umorea eta kritika uzartu ditu kaleratu berri duen liburutxoan.

Nola bururatu zitzaizun *Jony eta lagunak* komiki liburua argitaratzea?

Orain dela bi urte-edo hasi nintzen komikiak egiten, helburu jakinik gabe. Behin komiki batzuk bildu eta gero, promoziozko liburutxo bat kaleratu nuen, lagunartean banatzeko. Harrera ona izan zuen eta Gasteizko Zuloa dendan hainbat ale saldu zituzten. TMEOn azaldutako aipamenak ere aurrera egiteko animatu ninduen. Eta horrela, lagun bultzadarekin-eta, liburu hau kaleztatera ausartu naiz.

Euskaraz eta gazteleraz, gainera.

Bai, gazteleraz landu nituen *Jony eta bere lagun* gorabeherak, baina euskarazko bertsioa ere atera nahi nuen. Udaleko Euskara Batzordeak eta Emun kooperatibak lagundu didate horretan. Elena Odriozolaren laguntza ere eskertu nahi dut, har zuzendu baitzidan gaztelerazko lana, *Jony&Kompis* izenburukoa. Guztira, 1.000 ale kaleratu ditugu eta 5,80 eurotan salgai dago Hego Euskal Herriko liburu dendatan.

Eta zeintzuk dira *Jony eta lagunak*?

Euskal Herriko edozein hiritako lagun koadrila. Liburuan hainbat pertsonaia daude: *Jony* bera; *Pirata*, *Jonyren* txakurtxoa; *Txu*, *Jonyren* lagun alai eta lasaia; *Patxi*, *Jony eta Txu* koren laguna; uharte batean bolada luzea eman zuen *Jonyren* aitaita; aitaita ulertzeko gauza den izaki bakarra, *Poli* izeneko estralurtarra, eta beste hainbat ere agertzen dira.

Liburuan umorea da nagusi, ala?



Bai, umorezko lana egin nahi izan dut. Liburua irakurtzen duen jendeak ondo pasatzea da nire helburua. 15 urtetik gorako jendeari zuzenduta dago liburua. Orain, udan, hondartzan edo mendian gustura, lasai-lasai irakurtzeko moduko istorioak dira.

Hala ere, kritika ez duzu albo batera laga.

Bai, munduan gertatzen diren injustizien gainean gogoeta egiteko aukera eman nahi diet irakurleei. Gerra, kapitalismo basatia, pobrezia..., arazo mordoa dago eta horiek gogora ekartzea ez dago gaizki.

Irakurle moduan, zeintzuk dira zure komiki pertsonaia gustukoena?

Txikitatik *Mortadelo* eta *Filemon* eta horrelako komikiak izugarri gustatu zaizkit. Baina beste asko ere daude merkatuan: *Mafalda*, *Snoopy*, *Quico* *El Progre...*



Musika Eskolako bi ikasle, mundu osoko musikariek bat

E.M.

Nekane Zabaleta eta Jone Muruamendi araz Musika Eskolako ikasleak Tenerifan izan dira, mundu osoko musikari gazteak elkartu dituen nazioarteko kongresuan.

Jone Muruamendi (16 urte) eta Nekane Zabaleta (13) trikitia ikasten dihardute Musika Eskolan eta Agurtzane Elustondo beraien irakaslearekin abiatu ziren Kanarietara, Tenerifera. Hiru egun eman zituzten Tenerifan, uztailaren 11tik 14ra hain zuzen ere. Han izandako esperientziarekin liluratuta bueltatu dira Nekane eta Jone. Esandako moduan, mundu

osoko musika gazteak elkartu dira Tenerifan. Tartean, Euskal Herriko joandako 54 lagun izan ziren Kanarietako kongresuan. Besteak beste, txalaparta, alboka, dultzaina edota soinu hotsak eraman zituzten Tenerifera eta ikusleek euskal dantzekin gozatzeko aukera ere izan zuten. Euskal ordezkaritzak bi kontzertu eman zituen, Santa Cruz de Tenerifeko auditorioan bata eta hango parke batean bestea. Jonek eta Nekanekin soinu jo zuten aipatutako bi emanaldietan. Besteak beste, Australia, Mexiko, Txina, Portugal, Frantzia eta Italiako gazteak izan ziren Tenerifan egindako musika kongresuan.



Argazkian, Nekane eta Jone (aurrean) Australiatik etorritako gazte talde batekin.

BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Alde zaharreko ze kaletan daude atari eta leiho hauek?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|---|--|
| <p>1.
Bergarako zein auzotan ospatzen dituzte Santiago jaiak?</p> <p>A/ Angiozarren.
B/ Osintxun.
C/ Basalgon.</p> | <p>2.
Nor izan da Ipintzako jokalaririk onena, gizonzkoen senior mailan?</p> <p>A/ Bittor Jimenez.
B/ Ibai Gonzalez.
C/ Juan Luis Etxaniz.</p> | <p>3.
Zein da Jon Suinagak kaleratu berri duen liburuaren izenburua?</p> <p>A/ Jony eta lagunak.
B/ Kontuz krokodiloekin.
C/ Piratak.</p> |
|---|---|--|



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE MARI AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Mari! Aurreko asteko galderen erantzunak: Bonofotoa: Goxo-Pe. / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Molenbier garagardoa

33 cl.

0,30€

50 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Abdon Juaristi


KOLDO PEREIRA

Bergaran jaio zen 1948an. Lehen marrazki eta pintura ikasketak Simon Arrieta eta Moises Egurenekin egin zituen. Bizitzan zehar hainbat aretotan eskaini zituen erakusketak: Bergaran, Bilbon, Gasteizen, Hondarrribian, Irunen, Bartzelonan, Alacanten, Zaragozan, Gijonen, Madrilen, Mexikon eta Ameriketako Estatu Batuetan. Hainbat erakusketa kolektibotan ere hartu zuen parte: Espainian, Mexikon, AEBetan eta Japonian.

Irabazi zituen azken sarien artean honako hauek aipatuko ditugu: 1988an, Gen-Ten Ohorezko Diploma Osakan (Japonia); 1990ean, Riazako Udala Saria (Segovia); 1992, Avila Hiriko Pintura Lehiaketaren Lehen Saria. Juaristiren obra hainbat bildumatan dago jasota, esate baterako: Miamiko Bacardi Museoa; Berako Udalean; Bergarako Udalean; eta Europa eta Ameriketako zenbait bilduma partikularretan.

Bergarako Eskola deritzanaren partaide izandako margolari bergarar entzutetsu hura 1997an hil zen, eta hutsune galanta utzi zuen berarengandik gehien espero zitekeen unean.

'Bergarako Eskola' deritzanaren margolari entzutetsuenetakoa izan zen Juaristi



ARTIBOIA

Aldoka Maldoka


TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

BERGARA MARMOLERIA PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ERRETRATUZAHARRA



BERGARA

Murinondo auzoan arrantzan

Oraingo astean bi erretratu ekarri dizkizuegu. Eskumako irudia 1948ko otsailaren 23an ateratakoa da, eta Floren Labaien eta Markos Urriategi dira Deba ibaian arrantzan dihardutenak. Argazkia Murinondo auzoan ateratakoa da, Lazpiur eta Linazisoro lantegien parean, hain zuzen ere. Antza denez, sarritan joaten ziren arrantzara Floren eta Markos.

Goiko irudian, berriz, Murinondo Azpikoa baserrikoak ageri dira. 1960aren inguruan ateratako argazkia da, familiako ospakizunen batean. Goian agertzen dira, ezkerretik eskumara, Guillermo Urriategi, Juliana Zabaleta, Lorenza Maiztegi eta Markos Urriategi. Behean, jarrita, Juana, Pia eta Josefa Urriategi ahizpak.

Argazkia: Jose Mari Urriategi.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!


ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura




Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



POL-POL

Taberna

943 76 07 78. Bergara

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Silvestre Muñoz, s.l.

pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrial
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko uztailaren 23a / 211. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Erregionalen taldea osatzeko arazoak dituzte

AINTZANE IRIZAR

Antzuola Kirol Elkartek hil honen 13an egin zuen urteko batzar orokorra. Hantxe, besteak beste, aurreko denboraldiaren balorazioa egin zuten eta denboraldi berriaren gainean dituzten asmoen berri jardun zuten. Zuzendaritzan ez dute aldaketarik egin.

Orain artekoek jarraituko dute Antzuola Kirol Elkartearen zuzendaritza batzordean; Jose Angel Fernandezek presidente izaten jarraituko du eta honakoak dira zuzendaritzako gaineko kideak: Pablo Olalde, Gaizka Asensio, Jabier Fernandez eta Jose Mari Alberdi.

Batetik, aurreko denboraldiaren balorazioa egin zuten aurreko asteko batzarrean; kirol emaitzei dagokienez, balorazio positiboa egin zuten: erregional mailako taldeak igoera faserako sailkatzea lortu zuten; gazte mailako taldeak Gipuzkoako kopa irabazi zuten; kadeteek eta neskek, azkenik, ez dute denboraldi oso ona egin, baina, kirol elkarteko arduradunak pozik geratu dira orokorrean. Zuzendaritzako ordezkarien esanetan, ekonomikoki ere ez da urte txarra izan; dena dela, jokalariei ezin izan diete itzuli denboraldi hasieran jarri zituzten 60 euroak.

ERREGIONALEN TALDEA KOLOKAN

Denboraldi berriari begira, berriz, hainbat arazo dituzte kirol



ARTXIBOA

Zuzendaritzaren helburua da datorren denboraldirako lau talde osatzea.

elkartekoek. Arazo larriena erregional mailako taldearekin dute. Batetik, hainbat jokalarik erabaki du taldea lagatzea, batzuk kanpora ikastera edo lanera doazelako eta beste batzuk bestelako arrazoi pertsonalengatik. Gainera, aurtan ez da jokalaririk igoko gazte mailako taldetik erregionalen taldera. Gauzak horrela, herritarrek animatu

"Zuzendaritzakoek dei egiten die gazteei erregional mailako taldean jokatzeko izena eman dezaten"

nahi dituzte talde horretan jokatzea. Zuzendaritzako kideek espero dute Bergaran bertan behera laga duten erregional mailako taldeko hainbat jokalaririk etortzea Antzuolara. Elkartearen asmoa da abuztua baino lehen taldea osatuta izatea. Dena dela, irailaren 15era arteko epea dute federazioari izen guztiak emateko.

Azkenik, aipatzekoa da zuzendaritza batzordeak denboraldi berriari begira hartu duen beste erabaki bat: jokalaririk 70 euroko fidantza bat jarri behar du denboraldi hasieran. Denboraldi bukaeran arropak behar bezala itzultzen duen jokalaritari eta denboraldian zehar taldea lagatzen ez duenari itzuli egingo zaizkio 70 euroak.

JAIK

Jaien balorazio positiboa egin dute

AINTZANE IRIZAR

Aurtengo herriko jaiak ere aparteko arazo barik joan dira. Egitarauan izan ditugun berrikuntzek, gainera, arrakasta handia izan dute.

Egubakoitz gauean jende gutxi ibili zen, baina, oro har, aurreko urtetan baino jende gehiago ibili dela entzun diogu herritar askori.

Esan bezala, egitarauan sartu dituzten ekitaldi berriek izugarriko arrakasta izan dute; badirudi, herritarrek eskertu egin dutela ekitaldi ezberdinak antolatzea. Batetik, aipatzekoa da zapatu gaueko herri afaria; 140 bat lagun elkartu ziren txosna batzordeak antolatutako afarian.

Txosnak Zurrategin jarri izana ere positiboa izan dela esan dezakegu; sekula baino jende

gehiago ikusi dugu txosna gauean. Zapatu gauean, bereziki, DJ Bullen emanaldiarekin, bete-bete egin zen Zurrategiko plaza eta denak dantza jarri zituen disko jartzaileak.

Udalak herriko elkarteekin batera abian jarri duen ekimen berriak ere arrakasta izan zuten; domeka eguerdian gastronomia dastatzea antolatu zuten Trekutz elkarteak. Udalaren asmoa da hurrengo urtetan ere ekimen horrekin jarraitzea. Kirolariei egin zitzaizkien omenaldian ere jende askok parte hartu zuen.

HAINBAT KALTE

Herrian hainbat kalte ere egin dituzte jaietan: pare bat farola apurtuta agertu ziren eta Sagastin eraikitzen diharduten etxebizitzaren inguruan, berriz, hainbat erreminta desagertu ziren.



ASTELEHENKO GOENLARIA

Txosna batzordeak antolatutako herri afarian 140 bat lagun elkartu ziren.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



**taberna
jatetxea**

**Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiaik
Jaunartze erreportaiaik
Momentuko argazkiaik
Estudioko argazkiaik

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

TELEBISTA

Begoña 'La flecha amarilla' irabazteko atarian geratu zen

AINZANE IRIZAR

Astlehenean, hilak 19, herriko jaien biharamunean, jokatu zuten ETB2ko *La flecha amarilla* lehiaketako finala. Begoña Egaña antzuolarra izan genuen finalistetako bat, baina, ezin izan zuen lehiaketa irabazi. Aitor lehiakide bilbotarra izan zen irabazlea.

Finalerako txartela lortzeko froga bat jokatu behar izan zuen Begoña aurka. Froga hori irabazita, finalen ikusi ahal izan genuen astlehenean, Vicente eta Aitorrek in batera.

AZKENEKO LEHIAN, AITOR ETA BEGOÑA
Programaren erdialdean, bi lehiakide bakarrik geratu ziren, Begoña eta Aitor, hain zuzen ere. Vicente izan zen programako lehen zatian boto gutxien lortu zuela, eta finaletik kanpo gera-

tu zen. Gauzak horrela, bilbotarraren eta antzuolarraren artean zegoen lehia.

Ez zuten botoen portzentajeen berririk eman, baina, jakin dugunez, pare-parean ibili ziren Begoña eta Aitor. Azkenean, baina, bilbotarrak eraman zuen 18.000 euroko saria.

ANTZUOLAR KOADRILA MIRAMONEN
Begoñari animuak ematera koadrila handia joan zen Miramona; Begoñaren koadrilakoak eta senitartekoak joan ziren, hamabost bat lagun, guztira.

Programa bukatu zenean, honako argazkia atera zuten guztiek, Begoñarekin batera.

Begoñak kontatu digu pozik dagoela: "Ez da gutxi izan honaino iristea eta pozik nago. Ia seguru nengoen Aitorrek irabaziko zuela lehiaketa; merezi zuen, gainera, irabaztea".



Begoña, animatzera joan zitzaizkion lagunekin eta senitartekoekin batera.

GOIENKARIA

Beste 25 etxebizitza eraikitzen hasi dira

AINZANE IRIZAR

Aurreko astean bertan hartu zituzten giltzak Buztinzuriko etxebizitza berrietako jabekideek. Herri hazten doa, duda barik, eta orain, beste 25 etxebizitza eraikitzeke lanekin hasi dira herrian.

Alde batetik, Buztinzur in bertan hasi dira etxebizitzak eraikitzen. Orain dela pare bat aste eraitsi zituzten Txasionekeo etxea eta Talleres Antzuola zegoen eraikina, eta hantxe egingo dituzte hamalau etxebizitza. Talleres Antzuola izandako eraikinari zutik laga dizkiote bi fatxada; Txasionekeo, aldiz, guztiz eraitsi dute.

Egingo dituzten etxebizitza gehienak apartamentu erakoak izango dira, etxebizitza txiki samarrak. Guztira, hiru solairu izango ditu eraikinak, beheko solairua kontuan hartu gabe.



Beheko auzoan hamaika etxebizitza eta Buztinzur in hamalau egingo dituzte.

BEHEKO AUZOAN BESTE 11 ETXEBIZITZA
Beheko auzoan ere, elektrikako etxea zegoen tokian, hain justu, hasita daude etxebizitzak egiteko lanekin. Hiru solairutan,

hamaika etxebizitza eraikiko dituzte hantxe. Azpiko aldean, etxebizitza bakoitzeko garaje bat ere egingo dute, hamaika garaje, alegia.

LABUR

Baserrietako plastikoa batuko dute martitzenean Zupide azpiko aparkalekuan

Martitzenean, hilak 27, batuko dute baserrietan sortutako plastikoa; arratsaldean laga behar da plastikoa, Zupide azpiko aldeko aparkalekuan. Siloa estaltzeko erabiltzen den plastikoa, belar bole-tan erabiltzen dena, negutegietan eta baratzetan erabiltzen den plastikoko beltza eta negutegietako plastikoa zuria batzen dituzte, besteak beste.

'Zinea izarpean' egitarauko azken filma gaur gauean, 22:30ean, eskainiko dute

Ekaineko lehen asteburuan jarri zuen abian Udalak *Zinea izarpean* izeneko egitaraua. Ordutik hainbat film eskaini dituzte egubakoitz gauean, frontoi txikian. Gaur, egubakoitza, ikusi ahal izango dugu egitarau horretako azkeneko filma, 22:30ean, Clint Eastwooden zuzendutako *Mystic River*, hain zuzen ere.

Ezohiko osoko bilkura egitekoak ziren, gaur, egubakoitza, hiltegiaren gainean

Gaur, egubakoitza, egitekoak ziren ezohiko osoko bilkura. Bilkura hori egiteko arrazoia zen Zubillagako hiltegia. Azkeneko hilabeteotan polemika piztu da hiltegi horren etorkizunaren gainean. Mankomunitateak proposatu du urtebetez Zubillagako instalazioak "mantentzea eta gordetzea" eta ganadua beste hiltegi batzuetara eramateak sortzen dituen kostuen zati bat ordaintzea. Horren guztiaren gainean erabakitzekeak ziren gaurko bilkuran.



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki



Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko uztailaren 23a / 195. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Haurreskola irailerako prestatuta egon dadin obretan dihardute Herri Eskolan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Oraindik data zehazteke badago ere, irailean irekiko ditu ateak Haurreskolak. Behin-behineko kokapena Herri Eskolan izango duenez, beheko solairuan ume txikiendako gela bat egokitzeko lanetan dihardute hainbat beharginek egunotan.

Irailean hasiko dira 0 eta 3 urte arteko umeak Haurreskolan. Hori dela eta, eurendako gela bat gertatzen dihardute.

Behin-behineko gela hori Herri Eskolako beheko solairuan egongo da. Bertan, erabilera askotariko gela bat kokatuko dute, eta umeak egoteko txoko bat ez ezik, sukaldea, lo egiteko lekua eta komunak ere izango ditu, bai umeendako eta baita irakasleendako ere. Izan ere, etxetik ekarritako janaria gelan bertan emango diete umei, eta behin bazkalostean bertan lo kuluxka egingo dute.

Haurreskolaren helburu nagusia familiei hezkuntza eta laguntza zerbitzua ematea da, eta umei heziketa emateaz gain, hauek zaindu ere egingo dituzte.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Igeltseroek Herri Eskolan gela bat egokitu dute eta irailetik aurrera bertan egongo da Haurreskola.

HILAREN AMAIERARAKO BUKATUTA

Gela bera egin dute jadanik Herri Eskolako irakasle gelaren ondoren, besteak beste, paretak eraikiz. Orain margotzea eta lurra ipin-

tzea falta da, eta horretan jardungo dute pintore eta arotzek. Lanak hilaren amaierarako edo beranduenez abuztuko lehen aste-
rako amaitzea espero dute.

Ondoren, irailean Haur Eskolen Partzuergotik altzariak ekarritako guztia gertatu eta umeekin lanean hasteko moduan izango dira.

Gelan, erabilera askotariko txokoa, sukaldea, lotarako tokia eta komunak egongo dira

Haurreskola irekitzeko egun zehatza zein izango den ez dute esan, baina izena eman duten haurren gurasoei aurrez jakinaraziko diete.

Oraingoz hiru haurrek eman dute izena, 2004an jaiotakoa bat eta beste biak 2003koak. Baina ikasturteko edozein unetan Haur Eskolan sartzeko aukera izango dute txikitxoek. Horretarako, Haurreskolara edo udaletxera jo beharko dute interesatuek.

ESKOLAN EGOKITZAPENAK

Haur Eskolaren kokapena behin-behinekoa da eta Herri Eskolan kokatuko dutenez, hainbat egokitzapen egingo dituzte bertan. Besteak beste, Udalak ganbara utzi dio eskolari eta han psikomotritzitate gela prestatuko dute irailerako.



Fo-fo-fo Ipintzan txapelturnorde

Egubakoitzean jokatu zuen Elgetako Fo-fo-fo taldeak Ipintzako futbol txapelketako finala A Ze Flaxa taldearen kontra. Finaleko jokoa oso parekatua izan zen eta amaieran penaltien bidez erabaki behar izan zuten txapelturnorde. Talde bakoitzak seina penalti bota zituen atera, eta A Ze Flaxak guztiak sartu zituen. Fo-fo-fo taldekoek, berriz, bost. Iaz txapelturnorde izan ziren arren, aurten ezin izan dute garai-pena berretsi eta txapelturnorde postuarekin konformatu behar izan dute./I.A.

LABUR

Saihesbidearen proiektua jendaurrean

Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuak idatzi du Elgetako saihesbidearen lehenengo faseko proiektua. Honek jasotzen du Kanpazartik Eibarrerako bidea, Elgetatik pasatuko dena. Saihesbidea egiteko industrialdearen inguruan biribilgune bat egin behar dute. Horretarako, hainbat lur desjabetuko dituzte, 12 partzela guztira. Hori dela eta, proiektua jendaurrean ipini dute norbaitek alegaziorik aurkeztu nahi balu.

ELKARRIZKETA

JOSE ANTONIO IRAZABAL ETA EMILIO MANDALUNIZ/TXIRRINDULARI ELKARTEKO ZUZENDARITZAKOAK

“Txirrindulari elkartearen lekuko aldaketa behar da”

Elgetako Txirrindulari Elkartearen presidenteordea eta presidentea dira, hurrenez hurren, Jose Antonio eta Emilio. Mendi kriteriumaren 20. edizioa jokatu zen domekan eta eurekin hitz egin dugu probari buruz.

Aurtengoa mendi kriteriumaren 20. edizioa izan da. Zein balorazio egin duzue?

Lasterketa oso polita izan da, urtero bezala. Lasterketa gertutik jarraitu dutenen esanetan lehia handia egon da. Uste baino txirrindulari gutxiago etorri da, ezta?

Bai, hala da. 130 espero genituen baina talde batzuek ziklista gutxiago ekarri dituzte beste lasterketa batzuetara joan direlako. Lehen kanpoko taldeak ere ekarzen genituen, baina diru asko eskatzen zuen horrek eta hemen nahikoa maila badago.

Hainbeste urteren ostean aldaketarik izan du probak?

Urtero egiten dugu berrikuntza txikiren bat (antolatzaileon petoak, kartelak...), baina aldaketa nabarmenik ez. Orain dela 14 urtera arte lasterketa zapatuan izaten zen, baina domekara pasatzearekin ibilbidea ere aldatu genuen, baina gainontzean ez. **Lasterketaren lehen urteak gogorrek izan omen ziren.**

Lasterketa bera antolatzearen ideia apustu batetik sortutakoa da. Ia nahi gabe hasi ginen eta 20 urte pasa dira. Lehen urtean gure ardurak hesiak jartzea eta

gauza txiki batzuk lotzea baino ez zuen izan behar; baina gauzak okertu egin ziren. Hala ere, Eibar-ko taldearen laguntzaz aurrera atera genuen lasterketa.

Maila honetako proba gogorra dela diote. Inoiz aldatzea pentsatu duzue?

Inoiz portu bat gehitzea pentsatu dugu, baina erraztea ez. Lasterketa bakoitzak berezitasun bat du eta izenak dioen moduan eta Elgeta gain batean egonda, mendia da proba hau berezi egiten duena.

Herriko txirrindulariek ere hartu dute parte, ezta?

Aurten Xabi Aranguren eta aurretik Vicente eta Oskar Askasibarrek eta Angel Ibarluzeak. **Zuen elkarteak zein asmo ditu etorkizunerako?**

Lasterketa k antolatzen jarraitu nahi dugu, baina taldean lekuko aldaketa eskatzen dugu. Gazteak sartzea litzateke onena. Eurei dei egiten diegu taldera etortzeko, eta guk lagunduko diegu.

“Inoiz ibilbideari portu bat gehitzea pentsatu dugu, baina lasterketa erraztea ez”



JAIEN BALORAZIOA

Jai batzordeak deitutako bileran balorazio positiboa egin dute

Jaien balorazioa egiteko bilera astelehenean izan zen. Jaietan egon zen gutzia gonbidatuta egon arren, zortzi lagunek baino ez zuten parte hartu batzarrean. Hala ere, euren iritzia jaso eta hurrengo urteetako jaiak antolatzean kontuan izango dituzte.

Azoka Nagusiko Jaiak uztailearen hasieran izan baziren ere, gogotarako tarte bat hartu eta jaiak baloratzeko batzar irekia asteon egin dute Jai batzordeak deituta.

Luzea izan zen bilera. 21:30ean hasi eta 00:30ak artekoa. Bertan,

jai egitarauko puntu gehienak aztertu zituzten eta bertaratutakoen iritzia jaso. Horrela, ongi irteko gauzak eta egindako akatsak agerian utzi ziren.

Erabaki zuten gauza batzuk ongi irten diren arren ez litzatekeela komenigarria urtero-urtero errepikatzea, nahiz eta jendeak harrera ona egin.

Esaterako, umeen euskal jaiak edo paella erraldoiarekin egindako herri bazkaria. Azken hau errepikatze modukoa izan daiteke, baina beharbada beste menuren batekin.

Umeendako beste batzuetan baino gauza gehiago egon direla eta, hori positiboa izan da.

Hitz egindakoak idatziz jasoko eta hurrengo urteko jaiak antolatzerakoan kontuan hartuko dira, bai hutsegiteak konponduz edo baita estimazioa izan duten ekitaldi batzuk errepikatuz.

UDAL ORDEZKARIEN IRITZIAK

Asteleheneko batzarrean Udaleko ordezkariak ere izan ziren, eta euren iritzia eskatu diegu.

“Jendeak asko lagundu du bai antolakuntzan baita ekintzetan parte hartzen ere. Giro polita nagusitu da. Ekintzen artean arrakastatsuenetarikoa umeentzako animalia harrapatzea, herri bazkaria eta jokoak edo dantza solteko lehiaketa izan dira. Hala ere, hainbat gauzatan huts egin dugu eta herrian sumatu ditugu ezadostasunak: antzerkia kalean ez egitea; edo ekintzetan parte hartzeko jende anitzagoarengana heletzea lortu ez izana. Programa bera ere letra irakurteaz gain idatzia zegoen”, esan digu Iban Retolaza Kultura zinegotziak.

Izaskun Larrea EAJ-EAko zinegotziaren esanetan, “herriko jendearen parte-hartzea azpimarratuko nuke, nahiz eta kanpotik beste batzuetan baino jende gutxiago etorri den. Beti aurkitzen dira hobetu beharreko gauzatxo batzuk eta horretan saiatuko gara, baina oro har jaiak ongi joan direla esan genezake”.

JAIK

Goimendi auzoan jaiak aste bukaeran

Elgeta eta Bergara arteko Goimendi auzoan Santixao jaiak ospatuko dituzte asteburuan.

Bihar, zapatua, 21:30ean hasiko dira jaiak, eta ondoren, jailetara joandakoek berakatz-zopajateko aukera izango dute auzoko plazan.

Afaldu ondoren erromeria izango da Izar eta Alabier trikitilariekin, 22:30ean hasi eta goizaldera bitartean.

Santiago egunean, 11:00etan meza egongo da eta ostean, Soka Dantza, Kezka taldearen eskutik.

Eguerdian, herri kirolak: Mugertzak eta Elorriagak jar-

dungo dute aizkoran eta Haimar Irigoienek harri jasotzen.

Irazu eta Peñagarikano bertsolariak jardungo dute 12:30ean eta haien ondoren Lutxurdio eta Aitziberren trikitiak girotuko du Goimendi.

Arratsaldean dantzari gonbidatuek dantza solteko erakustaldia egingo dute, 17:30ean hasita, eta 18:15ean, bertsolarien saioa izango da berriz.

Bestalde, bolo jokoan jarduteko aukera izango da 18:30etik aurrera, txapelketa baitago iragarrita ordu horretarako.

Amaitzeko, iluntzean hasi eta gauerdia arte erromeria izango da Lutxurdio eta Aitziberrekin.



Irazuk Peñarekin jardungo du bertsoan eguerdian eta arratsaldean.



RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67